

2006ko ezkontzen ia erdia zibilak izan ziren

Ezkontza heterosexualen kopuruak %4,1ean egin du behera lehengo urtearen aldean

2006an Euskal AEn bizi zirenen artean 9.778 ezkontza izan ziren, sexu ezberdinen artekoak; aurreko urtean baino 423 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Azken urteetan gora egin du ezkontza zibilen kopuruak, 1990ean %23,3 eta %48,2 (4.714 guztira) 2006an. Ezkontza katolikoak 5.058 izan ziren eta 6 beste erlijioetakoak.

Herrialde historikoka, ezkontza zibilik gehien Gipuzkoan izan da (%50,1); ondoren Araban eta Bizkaian (%49,4 bietan). Euskal AEn bizi zirenen arteko ezkontza zibilen portzentajeak behera egin zuen erkidegotik kanpo izan zirenean.

Euskal AEko ezkontza-tasa (mila biztanleko 4,4 ezkontza), Europako Batasunekoaren eta Espainiako tasen aldean (% 4,8) txikixeagoa da. Uztaillean izan ziren ezkontzarik gehien, 1.605; irailean ondoren, 1.565, eta ekainean, 1.357.

Ezkondutik aurretik ezkontideek zuten egoera zibilar dagokionez, esan behar da aurreneko ezkontza izan zela gizonen %92,3rentzat eta emakumeen %92,5entzat.


Ezkontideen batez besteko adinak bost urtez baino gehiagoz handitu da 1986tik

Amatasunaren adina igotzearekin batera, ezkontzagileen adina ere igo egin da. 2006an ezkondu ziren gizonezko ezkontagabeen batez besteko adina 32,7 urtekoa izan zen; emakumezko ezkontagabeena, berriz, 30,7koa. 1986tik, senargaien batez besteko adina 5,3 urtez igo da; eta emaztegaiena, berriz, 5,8.

Ezkondu eta Euskal AEtik kanpo bizitzera joan zirenek batez ere Kantabriara eta Madrilera jo zuten. Helburuari dagokionez, aldeak badira, hiru herrialdeetan egindako ezkontzen artean: Arabakoak, batez ere, Gaztela eta Leonera, Madrilera eta Errioxara joaten dira; Bizkaikoek Kantabria eta Madril nahiago dituzte; Gipuzkoakoak atzerrira eta Nafarroara.

Ezkontzagileen lurralde-etorkiari dagokionez, ezkontzen %79 erkidegoko udalerri bereko biztanleen artean egin ziren; %6,6, berriz, udalerri mugakideetan bizi dira.

1. grafikoa: Ezkontide ezkongabeen batez besteko adina



Iturria: EUSTAT

2006an 169 ezkontza homosexual egin ziren

Bestalde, sexu bereko pertsonen artean egindako ezkontzak 169 izan ziren: 15 Araban, 83 Bizkaian, 61 Gipuzkoan eta 10 Euskal AEtik kanpo. 100 gizonen artekoak eta 69 emakumeen artekoak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp